Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3853

EBAZPENA, 2009ko maiatzaren 27koa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren konturako 2005eko deialdiaren barruan, Covetel SA/VIVE TV erakundeak aurkeztu «Desarrollo de la Escuela Popular Latinoamericana de Cine Documental» ZUZ-2005BA/0010 hitzarmenari zati batean uko egitea onartzeko dena.

Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kontura 2005eko ekitaldian proiektuei laguntzak emateko dei egiten duen eta laguntza horiek arautzen dituen apirilaren 5eko 70/2005 Dekretuak honela dio 28. artikuluaren 1. paragrafoan: erakunde eskatzaileak jarduera gauzatzerakoan sartu nahi dituen aldaketen berri berehala emango dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari eta, aldi berean, aldaketa horiek aurrekontuan izango duten eragina zehaztu beharko du.

Proposatutako aldaketak onartzea Garapen Lankidetzarako zuzendariaren eginkizuna da.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren aginduaren bidez, Covetel SA/VIVE TV erakundeari 200.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Desarrollo de la Escuela Popular Latinoamericana de Cine Documental» hitzarmena burutzeko.

Aipatu erakundeak, 2009ko maiatzaren 22an, aurreikusitako diru-laguntzaren bigarren ordainketari —100.000 euro— osorik uko egiteko eskabidea egin zion Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari idazki baten bidez.

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak diru-laguntzaren erakunde onuradunak eskatutako aldaketen aldeko irizpena eman du, eta horren ondorioz, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren konturako 2005eko deialdiaren barruan, Covetel SA/VIVE TV erakundeak «Desarrollo de la Escuela Popular Latinoamericana de Cine Documental» hitzarmenean uko egiteko egindako eskabidea onartzea, hau da, aurreikusitako diru-laguntzaren bigarren ordainketari —100.000 euro— uko egitea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

3853

RESOLUCIÓN de 27 de mayo de 2009, de la Directora de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la renuncia parcial para el convenio ZUZ-2005BA/0010, «Desarrollo de la Escuela Popular Latinoamericana de Cine Documental» presentado por la entidad Covetel, S.A./VIVE TV dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al Focad 2005.

El apartado 1 del artículo 28 del Decreto 70/2005, de 5 de abril, que regula y convoca ayudas a proyectos con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo para el ejercicio 2005, establece que la entidad solicitante deberá informar inmediatamente a la Dirección de Cooperación al Desarrollo de las modificaciones que pretenden introducirse en la realización del proyecto especificando las repercusiones presupuestarias que implican.

Corresponde a la Dirección de Cooperación para el Desarrollo aprobar las modificaciones propuestas.

Por Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se concedió a la entidad Covetel, S.A./VIVE TV una subvención de 200.000 euros para la realización del convenio, «Desarrollo de la Escuela Popular Latinoamericana de Cine Documental».

La citada entidad, en comunicación dirigida a la Dirección de Cooperación al Desarrollo con fecha 22 de mayo de 2009 formuló una solicitud de renuncia total del segundo pago de la subvención prevista, de 100.000 euros.

La Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a los cambios solicitados por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Autorizar la renuncia solicitada por Covetel, S.A./VIVE TV en el convenio, «Desarrollo de la Escuela Popular Latinoamericana de Cine Documental» presentado dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al Focad 2005. Esto supone la renuncia a recibir íntegro el segundo pago de la subvención prevista de 100.000 euros.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke. Ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 27a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
IRUNE AGUIRREZABAL QUIJERA.

Segundo.– Contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes, a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de mayo de 2009.

La Directora de Cooperación al Desarrollo,
IRUNE AGUIRREZABAL QUIJERA.